



ALBOAN

Laguntzaren eginkizuna MGH-ak tokian-tokiko prozesuan



Argitalpen hau Milurtekoko Garapen Helburuen egoerari buruzko 5 ikerketaz osatutako bilduma baten zati da. Gai honen inguruan sakondu nahi izanez gero bestelako material osagarria ere badugu (sakontzeko koadernoak, komikiak, posterrak...), eskaria gure bulegotan zein gure web orrian egin dezakezu.

Ikerketak ALBOAN

...

4. Nazioarteko boluntario-lana: inplikazioaren eta elkarrizketa kulturalaren esperientzia. Ikasteko esperientzia. (2007)
5. Zor jasangaitza. (2008)
6. Garapenaren finantzaketarako nazioarteko baliabideak: Tobin tasa eta "International Finance Facility". (2008)
7. Giza Eskubideak nazioarteko finantza- eta merkataritza-erakundeetan txertatzen: lorpenak eta aukerak. (2008)
8. Onuragarria da behartsuentzat NBE-ren erreforma? Uneko erreforma-proposamenen ebaluazio kritikoa. (2008)
9. Laguntzaren eginkizuna MGH-ak tokian-tokiko prozesua. (2008)

Laguntzaren eginkizuna MGH-ak tokian-tokiko prozesuan



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo

Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938

alboanbi@alboan.org

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea

Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308

alboanna@alboan.org

Erronda Kalea 7, 4. Ezk • 20001 Donostia

Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267

alboangi@alboan.org

Monseñor Estenaga, 1 • 01002 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676

alboanar@alboan.org

www.alboan.org

Egilea: Diana Conyers

Itzulpena: Elhuyar

Data: urria 2008

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: Bi-2022-08

ISBN: 978-84-612-6072-0

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburua aipatzen baldin bada.

Aurkibidea

Laguntzaren eginkizuna MGH-ak zehazteko prozesuan

1. Sarrera	5
2. Laguntza eta garapena Afrikan	6
3. MGHak zehazteko inplikazioak	9
4. Azken oharrak	18
Erreferentziak	19

LAGUNTZAREN EGINKIZUNA MGH-AK ZEHAZTEKO PROZESUAN

*Diana Conyers**

1. SARRERA

Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) ez lortzea beste faktore batzuekin elkar-tu da; hori horrela, Afrikagatik kezka areagotu egin da laguntza-emaile multina-zionalen eta alde bikoien artean, eta mendebaldeko herrialde askotako jendearen artean, Erresuma Batuan batez ere. Lan hau prestatzen ari ginela, zazpi herrialde industrializatuenetako eta Errusiako (G8) liderrek Gleneagles-eko Goi Bileran 2010erako Afrikarentzako laguntzak bikoiztea hitzartu zuten, eta,aldi berean, lider afrikarrek gobernu-modua hobetzeko ahaleginei berriro ekitea erabaki zuten. Bien bitartean, gizarte zibileko erakundeek G8ri presioa egiten zioten Afrikaren alde gehiago egin zezaten, eta Europako herritarrek hedabideetan Afrikako gaiei buruz aurrekaririk gabeko albiste mordoia eduki zuten. Hala ere, gerta daiteke garapen horiek onura baino kalte gehiago ekartzea. Bi ideia faltsu-tan oinarritzen direlako gertatzen da hori: lehenik, Afrikako garapenaren arazoak sinpleak direla eta Milurtekoko Helburuak erraz lor daitezkeela; eta, bigarren, laguntzak masiboki handitzea dela helburu horiek betetzeko biderik onena.

Dokumentu honek uste horien tolesgabetasuna aztertzen du, eta laguntzek MGHak lortzen laguntzeko garaian duten potentziala eta mugak jartzen ditu

* Lan hau Kanpala (Uganda) aurkeztu zen lehenbizi, SNV- Garapenerako Herbeheretako Erakundeak (www.snvworld.org) antolatuta, 2005eko abuztuan egindako “MGHak Afrikan zehaztea: aukerak eta esperientziak” konferentzian. ALBOANek eskerrak eman nahi dizkie egileari eta antolatzaileei, itzulpena eta argitalpena ahalbidetzeagatik. Rob Mellors-i eskerrak eman nahi nizkioke lan honen lehen zirriborroaren ganean egindako iruzkinengatik.

mahai gainean. Lanaren gainerakoa hiru ataletan banatzen da. 2. atalak Afrikan “garapena” nolakoa den aztertzen du, eta laguntzek duten egitekoa. Garapena prozesu luzea eta mantsoa delakoan dago, eta kanpotik baino gehiago barrutik sortu behar dela eta, kanpoko laguntza zalantzarik gabe beharrezkoa izanik ere, premiazkoa dena ez dela laguntza handitzea, baizik eta hori “emateko” moduan funtsezko aldaketa batzuk egitea. 3. atalak MGHk zehazteko horrek dituen inplikazioak hartzen ditu kontuan, hainbat barruti eta komunitatetako kanpoko laguntzaren programetan izan dudana esperientzian oinarrituta. Azkenik, 4. atalak ondorio orokor batzuk ateratzen ditu, eta MGHak zehazteko prozesuan laguntzen egitekoa nola hobe litekeen iradokitzen du.

2. LAGUNTZA ETA GARAPENA AFRIKAN

2.1. GARAPENAREN KONPLEXUTASUNA

“Garapena” –dela komunitateena, tokiko gobernuena edo nazioena– ez da egun batetik bestera gertatzen den gauza. Prozesu konplexua da, luzea eta mantsoa, egituretan, sistemetan eta jarreretan aldaketak inplikatzen dituena. Are gehiago, ez da kanpotik zuzen daitekeen zerbaite. Pertsona eta erakunde egokiek abiarazi eta gidatu behar dute, eta ez du “garapen-eredu” unibertsal batean oinarritu behar, norbanakoen beharrez eta zirkunstantzietan baizik. Fukuda-Parr, Lopes eta Malik-ek (2002:8) diotenez:

Garapenari buruzko teoria unibertsal guztien arabera, herrialde gehienek organikoki eboluzionatu dute, haien logika propioari jarraiki eta haien baliabideez eta indarrez eraikitzen. Garapen-bidean eta egoera ahulean dauden herrialdeek, beste baten ereduari jarraiki, hutsetik hasi beharko luketela uste izatea historiaren aurkakoa da. Herrialde horientzat ere, prozesurik naturalena garapena eraldaketa gisa lortzea da. Haien baitan sustatutako prozesuetan oinarritzea esan nahi du horrek, bertako ezagutzen eta gaitasunen aberastasunetik abiatuz eraikitzea, eta horiek zabaltzea, herrialdeak nahi duen edozein asmo eta helburu betetzeko.

Bereziki, hori egia da gobernu-erreformen kasuan; hori Afrikan MGHak lortzeko kritikotzat hartzen dute nazio emaille eta hartzaileetako liderrek. Garapenari buruzko Ikerketen Institutuak koordinatuta, ikerketari buruzko oraintsuko txosten baten arabera, Fukuyamak (2004) “Estatua eraikitzea” deitzen duen hori “eragin-kortasunaren eta erantzukizunaren arteko oreka lortzearen” araberrakoa da (IDS 2005:2). Jarraian azaltzen duenez, herrialde garatuetan oreka hori “boterea zute-

nen eta gizarteko talde antolatuen arteko elkarreragin, negoziazio eta lehiaren” prozesu luze bati esker sortu zen, baina hain garatuak ez dauden herrialdeetan, “oinarrizko ordezkari- eta erantzukizun- eta administrazio-instituzioek ez dute legitimitaterik eta eraginkortasunik”, mundu garatutik transferitu egin zirelako, “estatua/gizartea negoziatio-prozesu batetik sortu beharrean” (Ibid:3).

Bestela esanda, garapena aldaketa historikoaren prozesua da, hain zuzen ere. Zoritxarrez, nazioarteko laguntzan parte hartzen duten pertsona eta erakunde askok hori ahaztu egin dutela dirudi. Horientzat, garapena industria bihurtu da (Lopes 2002; Ditcher 2003). Beste edozein industria bezala, behar diren emaitzak eskatu ahala sor daitezke, helburu jakin batzuk betetzeko; ezagutzen, lanaren eta kapitalaren arteko konbinazio zuzena baino ez dugu behar. Horregatik, ahaztu egiten dute Afrikako oraingo arazo sozialak, ekonomikoak eta politikoak ezin direla egun batetik bestera aldatu, koloniaren aurreko, bitarteko eta osteko historian sustrai sakonak baitituzte.¹

2.2. LAGUNTZAREN EGINKIZUNA: ERRETORIKA ETA ERREALITEA AURREZ AURRE

Goian zehaztutako garapenaren kontzeptuak bi inplikazio nagusi ditu nazioarteko laguntzari begira. Lehenik, laguntzaren egitekoa ezinbestean mugatuta dagoela iradokitzen du, aldaketarako ekimen nagusia barrutik sortu behar delako. Izan ere, laguntza-kopuru handiek, zirkunstantzia batzuetan bederen, “Estatua eraikitze” prozesua eragotzi edo atzeratu egin dezakete ustea gero eta zabalduago dago (Moore eta Rakner 2002; Sogge 2002; di Renzio 2005; Killick 2005; IDS 2005). Bereziki, bertako diru-sarrerak handitzeko ahaleginak gutxitu litzake, eta, ondorioz, zergadunenganako erantzukizuna eta haiek gauzak aldatzeko egiten duten presioa murriztu. Hori, jakina, gogoeta garrantzitsua da, Afrikarentzako laguntzak bikoizteko oraintsuko akordioa dela-eta.

Bigarren, garapenaren kontzeptu horrek inplikazioak ditu, laguntza “emateko” moduari dagokionez. Laguntzako esku-hartzeek “tokian tokikoak” izan beharko luketela iradokitzen da, bertako beharrian eta baldintzetara egokituak, eta bertako

¹ Erresuma Batuko gobernuak duela gutxi Nigerian izan duen esperientzia azpimarragarria da (Heymas eta Pycroft 2003). 1999an Nigerian gobernu zibil bat hautatu ondoren, Erresuma Batuko Nazioarteko Garapenerako Departamentuak (DFID) lau estatu pilotutan sektore publikoaren erreforma “txiroen alde” sustatzeko diseinatutako hainbat proiekturi heldu zion. Proiektuetarako, azpian zegoen justifikazioa hauxe zen: gobernu “demokratiko” batera transferitzea nahikoa izango zela, erreforma horretara eramango zuen ingurunea sortzeko. Hala ere, lau urte geroago, DFIDk bere estrategia orokorra berraztertu behar izan zuen Nigerian; izan ere, gobernu-aldaketa egon arren, Nigeriako sektore publikoa hain harrapatuta zuten mezenasgoak eta ustelkeriak, ezen proiektuek ez baitzuten aurrera egiten.

ahalmen instituzionala indartzeko moduan diseinatuak eta kudeatuak. Horrek, bere aldetik, “ikaskuntza-prozesu”² malguaren eta epe luzekoaren eredia dakar, “jarraibide” konbentzionalagoaren orde. Hala ere, laguntzei buruzko azterketa askok errealitatea askotan oso bestelakoa dela erakusten digute (Van de Walle eta Johnston 1996; Berg 1997; Lancaster 1999; Fukuda-Parr, Lopes eta Malik 2002; Mkandawire 2002; Sogge 2002; Brautigam eta Knack 2004; Conyers eta Mellors 2005; IDS 2005). Laguntzak ematearekin lotutako arazoan analisi xehea lan honen eremutik kanpo geratzen da. Hala ere, honela laburbil genitzake:

- Nahiz eta emaleek “jabegoaren” eta “asoziazioaren” printzipioak aitortu, teorian soilik onartzen dituzte;
- Emaleak etengabe ari dira “eredu” berriak eta irtenbideak “asmatzen” eta hartzaileei “jarraibide” edo “guztientzako uniforme”³ gisa inposatzen zaizkie horiek.
- Kanpoko kudeaketa-faktoreak askotarikoak direnez (zeregin asko aholkularitzen esku uztearen praktika barne), agentzia emaleek herrialde hartzaileen beharrian eta baldintzak ez dituzte sakon ezagutzen.
- Emaleek beren egiturak eta kudeaketa-sistemak inposatzen dituzte; arazo horrek herrialde hartzailearen sistema administratibo jadanik ahulduetan areagotu egiten du presioa, eta sistema propioak sortzeko ahaleginak deuseztatzen ditu.
- Emale askok dute arazo bera, bakoitzak bere proiektu eta programekin eta bere kudeaketa-sistemekin.
- Emaleek oso errealistak ez diren helburuak ezartzen dituzte xedeak lortze-ari dagokionez, eta proiektuak eta programak etengabe “azkartzen” saiatzen dira.

Emaleek ezagutzen dituzte arazo horiek eta onartzen dute, horiei heldu ezean, MGHak lortzeko ahaleginek porrot egin lezaketela. Errudunen artean dagoen Munduko Bankuak ere aitortzen du hori, eta bere *Mundu Garapenari buruzko Txostena* 2004 (Munduko Bankua 2003:203-17) delakoan kapitulu bat eskaintzen

² Ikaskuntza-prozesuaren kontzeptua Korten-ena (1980) da.

³ Lehen aipatutako IDSren txostenak azpimarratzen duenez, “segida azkar batean, emaleek estatuak gidatutako garapena defendatu dute, gero merkaturatzea eta gobernua funtzio zentraletatik erretiratzea, ondoren demokratizazioa, deszentralizazioa, agentzia autonomoak ezartzea, asoziazio publiko-pribatuak sortzea, eta gizarte zibilaren partaidetza” (IDS 2005:1).

dio. Eta 2005eko otsaila-martxoan OCDEren Garapena Laguntzeko Batzordeak (GLB) Goi Mailako Foro bat antolatu zuen Laguntzaren Eraginkortasunari buruz, eta herrialde garatuetako eta garapen-bidean daudenetako ministroek eta alde askotako laguntza-agentzien ordezkariak hartu zuten parte. Bilkura horren emaitza Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Parisko Adierazpena izan zen (GLB 2005), zeinak emaileak nahiz hartzaileak urrats zehatzak egitera konprometitzen baitzuten, esku-hartzeen tokiko jabegoa handitzeko, emaileen diru-sarrerak herrialde hartzaileen estrategia eta kudeaketa-sistemekin “lerrokatzeko”, eta emaileen arteko jarduerak “harmonizatzeke”, besteak beste.

Parisko Adierazpena dokumentu xehea da, arazoan analisi sakon batean oinarritua (GLB 2003), eta, zalantzarik gabe, norabide zuzenean egindako mugimendua da. Hala ere, saihestezina da haren balizko inpaktuari dagokionez eszeptikoa izatea. Bi arrazoi nagusi daude eszeptikotasun horretarako. Lehenik, Adierazpena ez da behar bezain urruti iristen. Adibidez, jabegoa handitzeko proposatutako neurriak garapen-estrategia nazionalak lantzean dautza, kontsulta publiko zabal batean oinarrituta, eta estrategia horiek emaileek errespetatzean.⁴ Gainera, konpromiso bat jasotzen du “emaitzetan oinarritutako kudeaketarekin”; soluzio hori helburuetara orientatuta dago eta, MGHe bezalaxe, lehenago defendatu den eta malguagoa den ikaskuntza-prozesuarekiko berotasuna epeldu lezake (Eyben 2005). Bigarren, emaileek arazo horien jakitun izan dira luzaroan, eta lehenago ere aldaketarako konpromisoak hartu dituzte, baina eragin txikiarekin (Van de Walle eta Johnston 1996; Lancaster 1999; Conyers eta Mellors 2005). Arrazoi nagusia emaileek bestelako gatazka-arrazoiak eta murrizketak izatea da, hala nola dirutza handiak ahalik eta azkarren ezarri behar izatea, beren “garapen-ereduak” frogatzeko eta beren informazio-eskakizunak betetzeko; eta, emailearen eta hartzailearen arteko harremana nahitaez berdintasunetik gabekoa denez, arrazoi eta murrizketa horiek nagusi izateko joera dute.

3. MGHAK ZEHAZTEKO INPLIKAZIOAK

3.1. SARRERA

MGHak zehaztearen kontzeptu orokorrak eta hori burutzeko ereduak hauxe azpimarratzen dute: tokian tokiko jabegoa, MGHak barneratu eta tokiko baldintzetara eta tokiko lehentasunetara egokitzen dituzten bertako eragileak goian deskriba-

⁴ Hori ez da oso desberdina Pobrezia Murrizteko oraingo Programekin (PRSP) gertatuko dela uste denaren aldean; horietako asko emailearen “jabego” bilakatzen dira, hartzaileena baino gehiago.

tutako garapenarekin bat etortzearen garrantzia. Eredu horrek, halaber, garapen-gaitasunaren garrantzia nabarmentzen du, eta, ereduzko soluzio bat baino gehiago, prozesu bat adierazten du.

Jadanik badaude laguntzak erabiltzearen esperientzia ugari, soluzio-motaren lagungarri gisa. Atal honek esperientzia horietako batzuk aztertzen ditu, eta jasotako irakaspenak aintzakotzat hartzen ditu. Bi zatitan banatzen da: lehen zatiak tokiko edo barrutiko gobernuak ditu aztergai eta, bigarrenak, komunitatea. Proposatutako ereduak garbi uzten duenez, bi maila horiek era berean dira garrantzitsuak, eta lotuta egon behar dute, eraginkorra izatea nahi bada. Alabaina, praktikan bereizi egiten ziren; hortaz, errazagoa da banan-banan aztertzea. Bi kasuetan ikuspegi orokor batekin hasi naiz, eta gero, “praktika zuzenen” kasu-azterketa baten tratamendu sakona egin dut. Bi azterketa-kasuak Zimbabwekoak dira. Alderdi batzuei begiratuta, ez da egokiena; izan ere, Zimbabwen une honetan dagoen giro politikoa ez da eskualde osoan ohikoa den giroa. Nolanahi ere, nire esperientziaren arabera, praktika zuzenen adibideak urriak eta urrutikoak dira eta, azken 15 urteotan denborarik gehiena Zimbabwen eman dudanez, errazagoa da niretzat kasu-azterketa egokiak han aurkitzea beste edonon baino.

3.2. TOKIKO EDO BARRUTIKO GOBERNUAK

1988an konferentzia bat antolatzen lagundu nuen, landa-garapen integraleko proiektuetan gaitasunak sortzearen eginkizunari buruzkoa (IRDP) (Warren, Conyers eta van Tilburg 1988; Conyers, Mosely eta Warren 1988). Konferentziak herrialde askotako eta laguntza-agentzietako jendea bildu zuen, denak eredu konbentzional bateko IRPDak eraldatzeko saioetan inplikaturakoak; eredu horretan arretagunea emaitzak ziren, prozesu-eredu batean, non kezka nagusia barrutiko instituzioen gaitasuna lantzea baitzen. Partaideek esperientziaren bidez ikasi zuten eredu-aldaketa hori beharrezkoa zela, IRDPek landa-garapen jasangarrian lagunduko bazuten. Konferentzian ordezkari zuten herrialdeetako bat Zambia zen, non Nazioarteko Garapenerako Sailak⁵ finantzaturako IRDP batek eraldaketari ekin baitzion eta laguntzako beste agentzia batzuek herrialdeko hainbat lekutan bere egin zuten eredu bat eskaini baitzuen.

Gauza asko gertatu dira 1988. urteaz geroztik. Batetik, konferentzia porrota izan zen, ezin izan baitzitzairen emailaeei sinestarazi IRPDak oraindik ere gara-

⁵ Erresuma Batuko laguntza-agentziak orduan Itsasoz Haraindiko Garapen Agentzia zuen izena; alabaina, nahasterik ez sortzeko, DFID (Nazioarteko Garapenerako Departamendua) izena erabiliko da lan osoan.

penerako irtenbide bideragarria izan zitezkeela. Garapen-eredu gehienekin gertatu bezala, emaileek nahiago izan zuten ikuspegi hori bertan behera utzi eta beste zerbaitetan saiatu, esperientzia ikusita aldatu beharrean. Hala ere, konferentzia ez zen erabateko porrota izan. Afrikan, Nazioarteko Garapenerako Sailak Zambian jasotako irakaspenak Zimbabwen herrialde osoko tokiko gobernuztat laguntza-programa bat eta barruti pilotu baterako laguntza-proiektu bat diseinatzeko erabili zituen. Azken proiektu horrek, bere aldetik, Zimbabwren emaileen bestelako jarduera batzuetan izan zuen eragina, Herbehereetako gobernukoetan eta SNVan barne, eta, azkenean, programa nazional bilakatu zen (DIP 2002). Gainera, Zimbabweco esperientziatik jasotako irakaspen batzuk orain beste toki batzuetan aplikatzen dira, batez ere Sudango hegoaldean.

Bien bitartean, beste emaile batzuek, independenteki, antzeko soluzioak garatu dituzte eskualdeko beste leku batzuetan. Bereziki, garrantzitsua da Kapitalizazioaren Garapenerako Nazio Batuen Fondoa (KGNBF), zeinak barruti pilotuetan garapen-proiektuak finantzatu baititu Afrikako hainbat herrialdetan, hala nola Ugandan, Malin, Senegalen eta Etiopian (KGNBF 2003), eta deszentraliziorri eta tokiko garapenari buruzko konferentzia bat antolatu baitzuen (Smoke 2003). Ugandan, KGNBFren proiektu pilotua eredu gisa erabili zen tokiko gobernuen garapen-programa baterako nazio osoan, eta une honetan zazpigarren fasean dago.⁶ Era berean da esanguratsua Herbehereetako gobernuaren eta SNVren lana, Tanzanian adibidez, non berriro ere proiektu pilotuak erabili baitira programa nazionalen eredu gisa, eta Ugandan, non SNVk “antolamendu-autoebaluzioa” kontzeptua (SNV 2002) garatu baitu.

Proiektuen eta programen arteko antzekotasunak nabarmenak dira. Denek tokiko gobernuak dituzte ardatz, tokiko garapen-proiektuetarako fondoak ematea inplikatzeko dute, eta laguntza teknikoa gaitasunak garatzeko; prozesuari begiratzeko diote ereduari baino gehiago, eta laguntza teknikoaren zeregina, “egitea” baino gehiago, bideak irekitzea dela azpimarratzen dute. Gainera, barrutietan oinarritzen badira ere, denek aitortzen dute tokiko komunitateen ekarpenen beharra, hor baitago komunitateen esperientziarekiko lotura. Puntu honetan, xehetasun handiagoz azalduko dut Zimbabweco esperientzia, ikuspegi horren potentzialari eta mugei buruz gehiago ikastearren, batez ere laguntzen eginkizunari dagokionez.

⁶ Garai horretan Ugandan antzeko ekimen independente bat zegoen, Danidak sostengatua.

Zimbabweko Barrutiari Laguntzeko Proiektu Pilotua (BLPP)⁷ bi eragile-talderen esperientzien eta interesen konbinaziotik sortu zen; bata barrukoa zen, eta bestea kanpoko. Zimbabweko administratzaile eta planifikatzaileen talde txiki baina garrantzitsua osatzen zuten barruko eragileek; gobernuaren “goranzko” plangintza-politika aplikatzen saiatu ziren, baina porrot egin zuten, gobernuaren fondo guztiak zentralizatuta eta departamenduetan sailkatuta zeudelako. Kanpoko eragileak eskualdeko DFIDeko langileak ziren; Zambian gobernuari laguntzeko beren tokiko proiektu pilotutik ikasi zuten eta soluzioa Zimbabwea eraman ote zitekeen ikusi nahi zuten. Diseinu- eta onartze-prozesuak hiru urte eman zituen (1986-89). Aldi horretan, denbora luzea eta ahalegin handia behar izan ziren Zimbabwearentzat neurritik egindako proiektu bat sortzeko, eta inplikaturik egongo ziren tokiko eta nazioko hainbat erakunderen sostengua eta konpromisoa jaso zen. Barruti pilotua (Gokwe) ondo pentsatuta hautatu zen, proiektuaren aldeko giroa bermatzeko, eta barrutiko ordezkariak erabat inplikaturik zeuden diseinatze-prozesuan.

Lau pertsona izan ziren funtsezkoak diseinatze-prozesuan: barruti pilotua kokaturik zegoen probintziako administratzaile probintziala, proiektuaren lehen defendatzaileetako bat izan zena; probintzia horretako planifikatzaile probintziala, diseinatze-prozesuan nazio-mailara transferitu zena eta, beraz, nazio-mailan beharrezko laguntza lortzeko gai zena; Zimbabweko DFIDeko ordezkaria, proiektuarekin erabat konprometituta zegoena eta Zimbabweko ingurunearen ezagutza ezin hobea zuena; eta Zambiano proiektuko lankidetzako teknikoko (TCO) langile ohi bat, diseinu xehean lagundu zuena. Laguntza teknikoko pertsonala hautatzeko prozesua ere garrantzitsua izan zen. Une hartan, DFID TCOak zuzenean enplegatzen proiektuen aplikazioa kanpora ateratzera igarotzen ari bazen ere, Harareko ordezkariak hau kasu berezia zela konbentzitu ahal izan zituen. Zambiano proiektuaren TCOak taldeburu izatea onartu zuen, eta beste bi TCOak talde-lanerako zuten gaitasunaren arabera aukeratuak izan ziren.

BLPPak proiektu pilotu gisa sei urtez funtzionatu zuen (1989-95). Denbora-tarte horretan, oro har arrakastatsutzat jo zen. Jarduerak beste barruti batera zabaltzeko ziren, eta, bi barrutietan garapen-programak planifikatzeko eta aplikatzeko gaitasun areagotua hain zen ikusgarria, ezen gobernu zentralerako bi langileak eta beste emakume batzuk eredu herrialdeko beste toki batzuetara zabaltzeko behar zela konbentziturik baitzeuden. Horrela, 1994an, tokiko gobernuentzako laguntza-programa bat diseinatzeko prozesua hasi zen herrialde osoan. Alabaina, prozesu

⁷ Ondoko kontakizun hau esperientzia pertsonalean oinarritzen da batez ere; hala ere, ikus DIP 2002, informazio gehiagorako.

hori oso bestelakoa izan zen BLPPren diseinuaren aldean. Programaren eskala zela-eta, prozedurazko askoz arau eta erregulazio gehiago behar ziren, nazio-mailako interes gehiagorekin bateragarria izan behar zuen eta, behar adina fondo lortzearren, askoz emaila gehiagok egon behar zuen inplikaturata, Mundu Bankuak barne. Bankuaren inplikazioa bereziki esanguratsua zen; izan ere, modu zoli baina ukaezinean, programaren kontrola bere gain hartu zuen eta, horrela, tokiko jabegoaren eta prozesu-ereduaren funtsezko baldintzak higatu zituen. Bere diseinuari eta exekuzio-prozedurei (exekutatzeko unitate berezi bat ezartzea barne) jarraitu behar zitzaizela azpimarratzen zuen, gobernu deszentralizazio-erreforma osagarriak onartzera behartu zuen, eta prozesuari halako abiadura eman zion, ezen Zimbabwen inplikaturatoko herritar asko atzean geratu baitziren. Halaber, arazoak izan ziren programako DFIDek sostengaturatuko kidearekin negoziatzeko, eta horrek laguntza tekniko ematea inplikutzen zuen. DFIDeko giroa nabarmen aldatu zen: ez zegoen jadanik DFIDen bulego nazionalik; eskualdeko pertsonalak ez zuen Zimbabweco ingurunearen ezagutza sakonik, ez eta BLPPren soluzioaren azpiko oinarrienik ere; eta bai diseinua, bai aplikazioa, kanpoko aholkularitza pribatuen esku utzi ziren.

Landako Barrutietako Kontseiluen Eraikitze Gaitasunaren Programak (RDCCBP), hala baitzuen izena, bost urtez funtzionatu zuen (1996-2001). Ez zen programaren ebaluazio independenterik egin. Hala ere, jende gehiena ados egongo litzateke haren lorpenak ez zirela BLPPrenak bezain eraginkorrak izan esaten badugu; gaitasunaren hobekuntza esanguratsuak barrutien heren batean izan ziren soilik. Arazoak, besteak beste, hauexek ziren: sostengu politiko desgokia neurri handi batean, barruti batzuetako agintarien arteko elkar ulertze eskasa edo/eta konpromisorik eza, talde-lanerako gaitasun egokia duen laguntza teknikoko bertako pertsonala aurkitzeko zailtasuna, prozedura operatiboen nolabaiteko zurruntasuna eta gobernu langile iraunkorren, laguntza teknikoko Zimbabweco pertsonalaren (gobernuak kontratu labor eta soldata puztuekin kontratatua) eta laguntza tekniko atzerriratuko pertsonalaren arteko tentsioak. Bien bitartean, Gokweren-jatorrizko barruti pilotua- aurrerapenak okerrera egin zuen. Kontseiluaren baitako aginte politikoko eta administratiboko aldaketek, politika nazionalen eta barruti-mailakoen arteko elkarreragin konplexuak eta lanaldi osoko barruti-laguntzaile bat erretiratzeak erakutsi zuten, maila honetan gaitasunak sortzeko prozesua BLPPren hasierako esperientziak iradokitakoa baino askoz ere luzeagoa eta zailagoa zen.

Zimbabweco tokiko gobernuaren gaitasunak sortzeko ahaleginak goizegi utzi ziren bertan behera, 2001ean, herrialdearen ezegonkortasun politiko eta

nazioarteko zorra kitatzeko ezintasuna zirela-eta, nazioarteko laguntza ia guztia kendu zenean. Geroztik, gainbehera politikoaren eta ekonomikoaren konbinazioak kolpe latza eman die tokiko gobernu-kontseiluei, eta gaitasunak sortzeko ahaleginen zuzeneko onura gehienak galdu egin dira. Hala ere, irudia ez da erabat negatiboa. Badaude kontseilu batzuk orain lider gisa laguntzaile ohiak dituztenak, eta ingurune ezkor horretan funtzionatzeko moldatzen direnak, RDCCBptik ikasitako printzipioak aplikatzen dituztela. Gainera, programan inplikaturako pertsona askok, Zimbabwekoek nahiz atzerrikoek, esperientzia baliagarria jaso zuten, orain beste egoera batzuetan aplikatzen dituztenak.

3.3. KOMUNITATEAK

Komunitateen garapena arlo zabala da, profesionalek idatzitako lan ugari dituen, baina horren azterketa dokumentu honen eremutik kanpo dago. Kanpotik gehien sostengatu diren komunitate-ekimenak proiektu indibidualak dira. Helburuei, arretaguneei eta metodoei dagokienez oso desberdinak dira, eta, era berean, askotarikoak dira finantzatzen dituzten emaileak; horietatik gehienak GKEak dira. Baina izan dira esperientzia horiek eskala handiagoan errepikatzeko saio batzuk ere. Saio horien artean ditugu Europako Batasuneko mikroproiektuen programak, Mundu Bankuaren fondo sozialak eta NBGren lankidetzaren deszentralizatuaren programa. Beste saio bat, berriagoa eta oso bestelakoa, Komunitateak Garatzeko Afrikako Institutua (lehen Khanya) izeneko Hego Afrikako GKE batek gidatzen du, zeina Afrikako hegoaldeko hainbat herrialdetan azterketa pilotuak burutzen ari baita, DFIDen finantza-laguntzaz (Khanya 2003; Goldman 2005). Hainbat esperientziatik jaso daitezkeen irakaspenak laburtzen saiatu beharrean, Zimbabweko Binga Barrutian kokaturako proiektu bat deskribatuko dut; proiektu horrek argi eta garbi erakusten ditu ekimen horiei kanpoko laguntza ematearen potentziala eta mugak, eta, halaber, barruti-mailako gaitasunen garapenaren eta komunitateen arteko lotura.

Binga⁸ Zimbabweko barrutirik txiro eta baztertuenetakoa da. Binga herria gutxiengo den Tonga talde etnikoak osatzen du (gutxiengo da talde hori); hango bizimodua 50eko hamarkadan eten zen, Kariba Dan eraikitzean. Proiektua 1996an hasi zen, tokiko Eliza Katolikoak babestuta, bertako komunitate aktibista bati esker eta Zimbabweko Justizia eta Bakerako Batzorde Katolikoari (CCJP)

⁸ Ondoko deskribapena, berritua ere, proiekturako lanaldi-erdiak aholkulari tekniko gisa izan nuen esperientzian oinarritzen da. Proiektuari buruzko xehetasun gehiagorako, ikus Conyers eta Cumanzala, 2004.

esker. Ofizialki Garapenerako eta Giza Eskubideetarako Bingako Proiektua zuen izena, baina normalki Binga CCJP gisa ezagutzen da. Haren eginkizun nagusia herri-mailako komunitateei beren giza eskubideak eta eskubide zibikoak ulertzen laguntzea, eskubide horiek zergatik urratzen zaizkien aztertzea eta antzemandako arazoei heltzeko antolatzea zen. Alabaina, 1999an jarduerak areagotu egin zituen, prozesu horren bitartez komunitateek identifikatutako tokiko garapen-proiektuetarako diru-kopuru txikiak eta laguntza teknikoa emateko. Oso eskala txikian hasi zen, lanaldi osoko langile batekin (abiarazlea) eta komunitateko boluntario-talde batekin, baina pixkanaka zabaldu egin zen, bere unerik onenean ia 40 langile eduki arte. Hasiera batean, AEBko Laguntzako Zerbitzu Katolikoa (LZK) erakunde katolikoak finantzatzen zuen, eta, geroago, haren homologo diren Britainia Handiko Atzerriko Garapenerako Agentzia Katolikoak (CAFOD) eta Danimarkako MS boluntarioen erakundeak ere parte hartu zuten finantziazioan.

Binga CCJP tokiko ekimena zen, ondorio guztietarako. Haren jardueren oinarri izan zen komunitatea mobilizatzeko urratsa tokian bertan egiten zen, behar ahala egindako ikaskuntza-prozesuari esker. Langile guztiak Bingako jendea ziren, bertan hartu eta prestatuak.⁹ Lanaren hedadura eta halaber kanpoko sostengua nabarmen handitu zirenean ere, emaileek fondoak eman eta, hala eskatzen zitzaizkionean, aholkularitza eskaini besterik ez zuten egin. Ez ziren erakundearen zabalkundearen neurrian edo norabidean, ez eta haren programen edukian ere, eraginik izaten saiatu. Gainera, eskaera gutxi egin zituzten proiektuaren kudeaketari dagokionez; malguak ziren haien ikuspegian, eta, CCJPren partaidetza-filosofiaren arabera, parte hartzeko metodoak sustatu zituzten proiektuaren diseinuan, kontrolean eta ebaluazioan.

Aurrerago azalduko ditudan arrazoiak direla-eta, Binga CCJPK sei urtez soilik funtzionatu zuen. Hala ere, aldi horretan arrakasta nabarmena lortu zuen (Conyers eta Cumanzala 2004). Bi lorpen dira bereziki esanguratsuak. Lehenik, arrakasta izan zuen “goranzko” partaidetzazko plangintzaren sistema eraginkorra landu zuenean, eta tokiko komunitateek beren beharrianak identifikatu eta lehenetsi ditzaketela eta, laguntza tekniko mugatu batez, beharrian horiei erantzuteko esku-hartze egokiak planifika ditzaketela erakutsi zuten. CCJPren jarduera bat etorri zen barrutia garatzeko fondoak gehitzearekin, gauza biak lehen aipatu

⁹ Salbuespen bakarrak ni neu, jadanik eskualdean bizi zen eta lanaldi-erdia zuen aholkulari tekniko bat eta MSk finantzatutako boluntario daniar bat ginen. Gutariko inork ez genuen parte hartzen erakundearen prestakuntza-etapetan, eta ez genuen inolako eginkizunik politikak gauzatzeko garaian.

dugun RDCCBPri esker eta Mundu Bankuak finantzaturako Komunitate Ekin-tzarako Programa bati esker.¹⁰ CCJPren jarduerak programa horiek osatzen zituz-ten, eta garbi erakusten zuten deszentralizazio finantza-baliabideen onurak maximizatzeko, plangintza-sistema eraginkorrak behar zirela, bai komunitateetan, bai barrutietan.

Beste lorpen esanguratsua kontzientziazio zibikoa areagotzea izan zen, barrutia-ren baitako “demokratizatzeko-prozesuarekin”. Bengan, Zimbabweco landa-eremu gehienetan ez bezala, jendeak kontzientziazio politikoa izan zuen, eta Mu-gaberen gobernuaren aurka altxatzeko ausardia. 2000ko erreferendum konstitu-zionalean, 2000ko eta 2005eko legebiltzarrerako hauteskundeetan, 2002ko pre-sidentetzarako hauteskundeetan eta 2002ko tokiko gobernurako hauteskundeetan, Bingako herritarrek gobernuaren aurka bozkatu zuten behin eta berriro. Lan honetan ezin ditugu hori eragin zuten arrazoi guztiak aztertu. Hala ere, pentsa genezake, nahiz eta CCJP alderdietako politikatik berariaz aldendu, haren kontzientziazio-jarduerak eta heziketa zibikoak rol garrantzitsua jokatu zutela horretan (Conyers eta Cumanzala 2004). CCJPK tokiko demokrazian ere eragin handia izan zuen. Komunitate-taldeek hainbat saio egin zituzten Barruti Kontseilua erantzule egiteko, eta geroztik talde horietako hainbat kide kontseilari bilakatu dira. Bestela esanda, CCJPK erakutsi duenez, komunitate-erakunde indartsuek tokiko gobernu-instituzioen erantzukizuna areagotu dezakete, eta elitea bertan nagusitzeko arriskua murriztu.

Alabaina, CCJParen lorpenak haren gainbeheraren kausa ere izan ziren. 2002ko urrian ixtera behartu zuten. Ixteko erabakia tokiko elizbarruti katolikoak hartu zuen, CCJPK barrutiko gobernuaren aurkako oposizioa sortzen laguntzen zuela-koan, politikari nazionalak eta tokikoak egiten zuten gero eta presio handiagoari erantzunez. Kasu hartan, ez zen lagungarria izan jendea mobilizatzeko garaian zuen arrakasta, eta bere beharrezanez helden saiatzeak Barrutiko Kontseiluan nahiz Elizan sortu zuen inbidia. Bina CCJPren historiak argi eta garbi erakusten du Zimbabweco eta Afrika osoko demokratizazioa prozesu luzea eta askotan mingarria dela.

Ez da CCJPren eredu beste inon birsortzen saiatu. Baina nahiko garbi dago, aurreko guztia ikusita, antzeko beste edozein saio zaila izango litzatekeela. Beste edonon nekez birsortuko lirateke erakundearen indargune nagusiak: Bingako

¹⁰ Komunitate Ekin-tzaren programa finantzaketa-eredu sozial konbentzionalen oinarritzen zen, baina, BLPPren eta RDCCBPren esperientziaren eraginez, tokiko kontseiluen bitartez funtzionatzen zuen.

herritarrek Bingan hasiera ematea; bertako ingurunera egokitzea; behar ahala ikasteko ereduari jarraitzea, eta lidergoaren kalitateak. Beharbada, bereziki esanguratsua da ez zela garapen-proiektu deszentralizatuago baten zati gisa kontzienteki ezarri. Zalantzarik gabe, haren komunitate-plangintzaren sistemak areagotu egin zuen finantza- eta plangintza-funtzioen deszentralizazioa barrutietan. Baina horrek ez du esan nahi sistema hori “eskatu ahala” sor zezaketenik barrutiko edo nazioko agintariak, eta ez behintzat emaileek. Hain zuzen ere, nazioko eta barrutiko agintariengandik CCJPak zuen independentziak lagundu zion haien aurrean zutik egoten.

3.3. ONDORIOAK

Aurreko analititik bost ondorio nagusi ateratzen ditugu:

1. MGHak zehazteko oinarrizko eredia, tokiko jabegoan eta tokiko eragileek tokikoa lehenestean oinarritua, kontzeptualki egokia da eta jadanik badago zer ikasia eman diezagukeen esperientzia garrantzitsu ugari.
2. Hala ere, ez dugu espero behar eredu horrek berehalako eragin ikusgarriak izango dituenik MGHren helburuak lortzeari dagokionez; izan ere, lehenik beharrezko gaitasun instituzionala garatu behar da, eta horrek prozesu luzea eta mantsoa inplikatu du, tranpa askorekin gainera.
3. Emaileek sostengatutako proiekturik arrakastatsuenek baldintza hauek dituzte:
 - Proiektua tokian hasi eta kudeatzen da, emailearen finantzazioarekin baino gehiago, haren fondo minimo batzuekin;
 - Esku hartzeko modua berariaz diseinatuta dago, tokiko beharrianak eta baldintzak betetzeko, kanpoko ereduren batean oinarrituta egon beharrean;
 - Emaileak ulertzen du eta sentikortasuna dauka tokiko ingurunearekiko, eta proiektua diseinatu eta kudeatzeko “prozesu-eredu” malgua hartzen du; eta
 - Aldeko giro politikoa dago.
4. Proiektu horiek, berez, oso zailak dira beste tokietara “zabaltzen” edo birsortzen; oinarrizko printzipioak (tokiko jabegoa, tokiko diseinua eta prozesu-eredua) besterik ezin dira transferitu.

5. Proporzionaloki zabaltzeko edo birsortzeko saioak oso erraz “jasotzen” dituzte emaileek, oinarrizko printzipio horien garrantzia ez badute aintzazkotzat hartzen edota, sarriagotan gertatu ohi denez, printzipioek beren egiteko gaitasunik edo/eta “borondate politikorik” ez badute.

4. AZKEN OHARRAK

Zoritzarrez, laguntzari dagokionez, emaile gehienek, bilateral eta multilateral handienek batez ere, beren egin ezin duten edo nahi ez duten ikuspegia eskatzen dute aurreko ondorioek. Askoz ere aldaketa erradikal handiagoak behar dira Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Parisko Adierazpenekoak baino, eta nolnani ere (2.2 atalean emandako arrazoiengatik) ez dirudi beteko direnik. Are gehiago, laguntza gutxiago eskatzea eragin lezakete, gehiago eman ordez, edo behintzat mantsoago ematea laguntzak, helburu zehatzik lortzera bideratu gabe. Oinarrizko arazoa, 2.2 atalean adierazi dugunez, “garapena” laguntza-agentziek gidatutako industria bihurtu dela da; agentzia horiek motibatzen dituzten faktoreak ez dira Afrikako behartsuengatikoz kezkarakin zerikusia dutenak, eta *status quo* delakoa mantentzeko interesak dituzte. Izan ere, Afrikako pobrezia historiaren atal bilaka dadin, esan genezake lehen urratsa garapenaren historia egitea dela; bestela esanda, garapenaren industria desegin eta “garapena” historiaren zati gisa dagokion lekura eramatea.

Pentsamendu utopiko hori alde batera utzita, hiru iradokizun egin nahi nituzke:

1. MGHa zehazteko eredia, tokiko jabegoan eta tokiko eragileek tokikoa lehenestean oinarritua, ez litzateke “eredu” gisa aurkeztu behar, baizik eta gida-printzipioen multzo gisa.
2. Eredua ez litzateke hala “merkaturatu” behar, baizik eta nazio, barruti eta komunitate-mailan, dagozkion erakundeen eta norbanakoen arteko esperientziak trukatzuz sustatu. Esperientzia-truke horretarako hainbat modu daude, hala nola konferentziak, ikerketa konparatiboa, MGHe beste alor batzuetan tokiko gobernuaren formaz egindakoa bezalakoa, eta, behar bada garrantzitsuena dena, zuzenean inplikaturakoen bisitak trukatea.
3. Emaileen praktiketarako inplikazioak (hau da, tokiko benetako jabegoaren beharra, tokian garrantzitsuak diren esku-hartzeak eta proiektua kudeatzeko prozesu-eredua) etengabe azpimarratu beharko lirateke bitarteko guztiekin. Agentzia emaile nagusietan zuzeneko eragina duten partaideek ahalgin bateratua egin beharko lukete kasua justifikatzeko, GMHa sustatu

dituztenek haienak justifikatu dituzten bezalaxe. NBGPk zeregin bereziki garrantzitsua dauka horri dagokionez. Eta zuzeneko eraginik ez dugunok aukera dugun guztietan gai hau behin eta berriro mahai gainean jartzen jarraitu beharko genuke, besterik gabe. Horregatik, konferentzia honetan txosten bat aurkezteko aukera aprobetxatu dut.

ERREFERENTZIAK

Berg, E., 1997. "Dilemmas in donor aid strategies". Overseas Development Council, *Perspectives on Aid and Development*. Washington DC, Policy Essay 22. 3. kapitulua.

Brautigam, D. eta Knack, S., 2004. "Foreign aid, institutions, and governance in Sub-Saharan Africa", *Economic Development and Cultural Change* 52: 255-85.

Conyers, D., Mosely, P. eta Warren, D.M. (eds), 1988. Integrated rural development: lessons of experience, *Manchester Papers on Development*: 4(1)(edizio berezia).

Conyers, D. eta Cumanzala, F., 2004. "Community empowerment and democracy in Zimbabwe: a case study from Binga District", *Social Policy and Administration*: 38:383-98.

Conyers, D. eta R. Mellors, 2005. "Aid effectiveness in Sub-Saharan Africa: the problem of donor capacity", *MGHak aplikatzeko gaitasunari buruzko tailerra*, Sussex-eko Unibertsitateko Garapenerako Ikerketarako Institutuak Londresen antolatua (*IDS Bulletin* delakoan argitaratzeke 36:3).

GLB (Garapenerako Laguntza Batzordea), 2003. *Report of Task Force on Donor Practice*. Paris: OCDE.

GLB (Garapenerako Laguntza Batzordea), 2005. *Laguntzaren eraginkortasunari buruzko Parisko Adierazpena*. Paris: OCDE.

Dichter, T.W., 2003. *Despite Good Intentions: Why Development Assistance to the Third World Has Failed*. University of Massachusetts Press.

DIP (Development in Practice), 2002. *Capacity Building for Decentralised Local Governance in Zimbabwe: Lessons from PDSP and RDCCBP*. Nottingham.

Di Renzio, P., 2005. "Can more aid be spent in Africa?" *ODI Opinions*. Londres: Instituto para el Desarrollo en Ultramar.

- Eyben, R., 2005. "Results-based management and donor learning", *MGHak aplikatzeko gaitasunari buruzko tailerra*, Sussex-eko Unibertsitateko Garapenerako Ikerketarako Institutuak Londresen antolatua (*IDS Bulletin* delakoan argitaratzeke 36:3).
- Fukuda-Parr, S., C. Lopes eta K. Malik (eds), 2002. *Capacity for Development*. Londres: Earthscan eta New York: NBGP.
- Fukuyama, F., 2004. *State Building*. London: Profile Books.
- Goldman, I., 2005. *Challenges of Community-Driven Development in Southern Africa*. Mintegiaren aurkezpena, Garapenerako Ikerketen Institutua, Sussex-eko Unibertsitatea, Martxo.
- IDS (Garapenerako Ikerketen Institutua), 2005. *Signposts to More Effective States*. Brighton: Sussex-eko Unibertsitatea,
- Khanya 2003. Lau txosten, Hegoafrika, Uganda, Ghana eta Zimbabweco komunitate-plangintzaren egoerari buruz. Bloemfontein.
- Killick, T., 2005. "Don't throw money at Africa", *MGHak aplikatzeko gaitasunari buruzko tailerra*, Sussex-eko Unibertsitateko Garapenerako Ikerketarako Institutuak Londresen antolatua (*IDS Bulletin* delakoan argitaratzeke 36:3).
- Heymans, C. eta Pycroft, C., 2003. *Drivers of Change in Nigeria: a Preliminary Overview*. Abuja: DFID Nigeria.
- Korten, D., 1980. Community organization and rural development: a learning process approach, *Public Administration Review* 40(5).
- Lancaster, C., 1999. *Aid to Africa*. Chicago University Press.
- Lopes, C., 2002. "Should we mind the gap?" Fukuda-Parr, Lopes eta Malik (eds): 121-46.
- Mkandawire, T., 2002. "Incentives, governance and capacity building in Africa", Fukuda-Parr, Lopes eta Malik (eds): 147-68.
- Moore, M. eta L. Rakner (eds), 2002. The new politics of taxation and accountability. *IDS Bulletin* 33:3 (guztizko edizioa).
- Smoke, P. (ed), 2003. *Public Administration and Development* 23(1) (FNUCDren Afrikako deszentralizazioari buruzko konferentziaren aurkezpenak jasotzen dituen edizio berezia).

Sogge, D., 2002. *Give and Take: What's the Matter with Foreign Aid?* London: Zed Books.

SNV (Garapenerako Herbeheretako Erakundea). *Why an Organisational Self-Assessment?* Kampala, 2002.

Kapitalizazioaren Garapenerako Nazio Batuen Fondoa (KGNBF) 2003. *Local Government Initiative: Pro-Poor Infrastructure and Service Delivery in Rural Sub-Saharan Africa*. New York.

Van de Walle, N. eta Johnston, T., 1996. *Improving Aid to Africa*. Washington DC: Johns Hopkins Press.

Warren, D.M., D. Conyers eta P. van Tilburg, 1988. *Role of IRDPs in Developing Institutional Capacity*. Iowa-ko Estatuko Unibertsitatea, Aldaketa Sozialaren eta Teknologiaren Programa.

Mundu Bankua, 2003. *Informe del Desarrollo Mundial 2004: Hacer que los servicios funcionen para los pobres*. Washington DC.

